

## FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Gure bazkideak gure bezeroak izango dira, haiek jakingo baitute ondoen gure lanari eskaintzen diogun dedikazioa nolakoa den. Bezero gisa sartzean, beraiek hilabetero edo urtero ordaintzen duten fakturan enpresaren zati txiki bat ere erosiko dute (prezioaren barruan egongo da) horrela, gure bezeroek gure enpresaren zati bat bihurtuko dira eta beraiek enpresak hartu beharko dituen erabaki garrantzitsu askotan parte hartuko dute beraien ikuspuntua eta iritzia partekatuz.

Hornitzaileei dagokienez, denak inguruko jatorrikoak izango dira, ekonomia lokala bultzatzeko, gainera hornitzaile ekologikoak bilatuko ditugu eta produktuen kalitatea ona izatea bilatuko genuke beti. Janariari dagokionez adibidez, enpresa batekin tratu bat sinatuko genuke eta tratu horri esker gure bezeroen animalia guztientzako janaria lortuko genuke (kalitate onekoa eta osasuntsua noski).

Gure eraikuntza garbi mantentzeko produktu ezberdinak beharko ditugu, haiek ere erosi egin beharko ditugu, horretarako oso sentsibleak izango gara garbiketa produktuekin ez dezaten osagai toxiko edo gure bezeroen animalientzako kaltegarriak izan daitezkeen materialik izan.

Albaitariak ere funtsezkoak izango lirateke, guk gure bezeroen animaliak beraiei emango dizkiegu ezbeharren baten aurrean, baina horrez gain urtero maskota bakoitzak errebisio bat izango luke klinikan. Bi negozioentzako onuragarria izateko albaitari klinarentzako proposamen bat dugu. Beraiek gurekin daudenean lan egiten beraiekin praktikan dauden ikasleak etor daitezke gure zentzora esperientzia lortzeko. Noski, konplikazioak ez egoteko albaitari arduraduna beharrezkoa izango zen eta prozeduretan gainberatzen ibiliko litzateke.